



KIDE BAKARREKO ETA TALDEKO ORGANOEN FUNTZIOAK

1. Jarraipen Batzordea

- 1.1. Osaera
- 1.2. Mendekotasuna
- 1.3. Funtzionamendua
- 1.4. Funtzioak

2. Hezkuntza Batzordea

- 2.1. Osaera
- 2.2. Mendekotasuna
- 2.3. Funtzionamendua
- 2.4. Funtzioak

3. Koordinatzailea

- 3.1. Mendekotasuna
- 3.2. Funtzioak

4. Hezitzailea

- 4.1. Mendekotasuna
- 4.2. Funtzioak

1. Jarraipen Batzordea: Haurreskolaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren segimenduz arduratuko den taldeko organoa izango da.

1.1. Osaera: ondokoek osatuko dute organo hori.

- 1) Haurreskolaren ordezkariak: koordinatzaileak
- 2) Hezkuntza Taldearen ordezkariak
- 3) Udalaren ordezkariak, udalak ordezkari izendatutako langileak.
- 4) Haurreskolako gurasoen ordezkariak.

1.2. Mendekotasuna: organo hori Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen mende egongo da.

1.3. Funtzionamendua:

- a) Jarraipen-batzordea, gutxienez ere, hiru hilabetetan behin bilduko da. Bilerak Haurreskolako koordinatzaileak edo kideen herenak deituko dituzte, astebete lehenago. Bileretan, Jarraipen Batzordeak sinatutako programazioa eta erabakiak betetzen diren aztertu eta baloratuko da bereziki. Jarraipen-batzordearen bileren akta jasoko da. Ikasturtearen hasieran bilera arrunten ordutegia ezarriko da.
- b) Bilerak lanegunetan egingo dira, haurreskolaren ordutegiaren ondoren eta kide guztiak bertaratzeko moduko ordutegian. Bilera egin eta erabakiak eta akordioak hartu ahal izateko, koordinatzaileak eta kideen erdiak egon beharko dute bileran.



- c) Erabakiak gehiengo soilez onartuko dira.
- d) Jarraipen Batzordeko kide guztiek eskatu ahal izango dute hartutako erabakien akta.
- e) Ezin izango da gai-zerrendatik kanpo dagoen gairik eztabaidatu edo erabaki, premiazko zat hartu eta kideen gehiengoaren aldeko botorik ez bada behintzat.
- f) Bilera arruntak idatziz deitu beharko dira astebete lehenago, eta bilera horietarako gai-zerrenda erantsi beharko da.
- g) Ez-ohiko bilerak 72 ordu lehenago deituko dira, gutxienez.
- h) Jarraipen-batzordean hartzen diren erabaki guztiak ordezkaturako sektoreei jakinaraziko zaizkie, eta iragarki-taulan jarriko da hartutako erabakien laburpena.

1.4. Funtzioak

Haurreskolako hezkuntza, asistentzi, administrazio eta zerbitzuei dagokienez, Jarraipen Batzordearen funtzioak dira haurreskolako jardura orokorra ikuskatzea, aztertzea eta baloratzea. Hona horien barruan sartzen diren egiteko batzuk:

- a) Haurreskolaren hezkuntza-proiektua egiten parte hartzea eta proiektu hori onartzea.
- b) Haurreskolaren hezkuntza-proiektua eta urteko programazioa egiteko eta aldatzeko proposamenak egitea.
- c) Haurreskolaren funtzionamendu orokorra eta egoera ekonomikoa aztertzea.
- d) Barne-erregimeneko arautegia egiteko irizpideak eta proposamenak ekartzea.
- e) Hezkuntza-zikloko hezkuntza-jarduerak koherenteak eta jarraituak izan daitezen arduratzea, eta, batik bat, bi urteko gelak koordinatzea.
- f) Guraso edo legezko tutoreei, haurren hezkuntza-jarduerekin zerikusirik duen orori buruz eman behar zaien informazioa koordinatzea.
- g) Hezkuntza-taldearen eta haurren gurasoen edo legezko tutoreen arteko hezkuntza-lankidetzaren sustatzea.
- h) Haurreskolak inguruko erakundeekin dituen harremanak ezagutzea eta beste harreman batzuk proposatzea.
- i) Instalazioen eta eskola-ekipamenduen berrikuntza sustatzea eta horien kontserbazioaz arduratzea.
- j) Haurreskolako egitegiaren proposamena egiten parte hartzea eta hura onartzea. Ondoren, Partzuergora aurkeztu beharko da, onar dezan.

2. Hezkuntza-batzordea: haurreskolaren berezko antolamendua eta funtzionamendua zehaztu, dinamizatu eta koordinatuko duen talde-organoa da. Halaber, haurreskolako jarduerak programatuko ditu.

2.1. Osaera: haurreskolako koordinatzaileak, haur-gela bakoitzeko hezitzaile-taldeak eta haurreskolaren plantillan hezkuntza-laguntzarako azaltzen diren langileek osatuko dute organo hori.

2.2. Mendekotasuna: zuzenean haurreskolako koordinatzailearen mende egongo da hezkuntza-batzordea.

2.3. Funtzionamendua

- a) Hezkuntza-batzordea, gutxienez ere, hilean behin bilduko da. Bilerak Haurreskolako koordinatzaileak edo hezkuntza-batzordeko kideen erdiak gehi batek deituko dituzte.



- Bileretan, Jarraipen Batzordeak ezarritako programazioa eta erabakiak eta hezkuntza-batzordeak berak hartutako erabakiak aztertu eta baloratuko dira, bereziki. Bileren akta jasoko da. Bileren egutegia eta ordutegia ezarriko da ikasturte-hasieran.
- b) Bilera arruntak 48 ordu lehenago deituko dira, eta dagokien gai-zerrenda gehituko zaie. Ohiz kanpoko saioak, berriz, 24 ordu lehenago deitu ahal izango dira.
 - c) Hezkuntza-taldeko kide guztiek bertaratu beharko dute bilerara, haurreskolako koordinatzaileari bidezko arrazoirik aurkezten ez bazaio behintzat, joan ezina adierazteko.
 - d) Gehiengoak onartutako akordioak eta erabakiak hezkuntza-taldeko kide guztiek bete behar dituzte, ezadostasun pertsonalik izan ezean. Azken kasu hori gertatzen bada, bilera-aktan adierazi beharko da.

2.4. Funtzioak

Curriculumaren garapenarekin eta metodologia-erabakiekin zerikusia duten alderdi guztiak aztertzea, eztabaidatzea, diseinatzea eta horien plangintza egitea. Hauek dira egiteko nabarmenenak:

- a) Jarraipen-prozesua eta proposatutako arloetan lortutako emaitzak egiaztatzea.
- b) Familiekin zein haurren garapenean eta ikaskuntzan esku hartzen duten agente guztiekin egin beharreko bilerak antolatzea eta programatzea.
- c) Haurren ebaluazio-prozesua koordinatzea.

3. Koordinatzailea: haurreskolaren antolamendua eta funtzionamendua kudeatzen duen kide bakarreko organoa da.

3.1. Mendekotasuna

Partzuergoaren zuzendaritza-batzordearen mende dago zuzenean, eta haren mende daude haurreskolako hezitzaileak.

3.2. Funtzioak

Haurreskolaren koordinatzaile orokorra da. Hauek dira bere egiteko nagusiak:

- a) Haurreskolan Partzuergoa ofizialki ordezkatzea eta ordezkaritza ofiziala izatea.
- b) Indarrean dauden xedapenak betetzea eta betearaztea.
- c) Partzuergoaren eta langileen arteko bitartekoa izatea haurreskolan.
- d) Hezkuntza-taldeko kide gisa jardutea.
- e) Bizikidetasuna sustatzea haurreskolan.
- f) Haurreskolaren inguruko erakundeekiko harremanak sustatzea eta bultzatzea.
- g) Hezitzaileen, gurasoen eta haurreskolako langileen arteko komunikazioa bermatzea eta sustatzea.
- h) Haurreskolaren baliabide didaktikoei eta espazio guztiei ahalik eta probetxu handiena ateratzean saiatzea.

4. Hezitzailea: haurreskolako haur-gelaren antolamendua eta funtzionamendua kudeatzeaz eta programatutako jarduerak garatzeaz arduratzen den kide bakarreko organoa da.

4.1. Mendekotasuna: haurreskolako koordinatzailearen mende dago.



4.2. Funtzioak

- a) Ebaluazio-jarduerak eta prozesuak antolatzen eta horien programazioa egiten laguntzea, bai eta hurrekoaren eguneroko kudeaketan ere.
- b) Beraien ardurapean dauden unitateetako jarduerak antolatzea eta horien programazioa egitea.
- c) Hurren garapen osoko prozesuarekin zerikusia duten egoera guztiez arduratzea:
 - Egoera afektiboez eta gizartearekiko eta inguruarekiko harremanez.
 - Higienez, elikaduraz eta atsedenez.
 - Garapen kognitiboaz eta espresiboaz eta hurren bizi duen eboluzio-uneaz.
- d) Hurren hartuko dituen espazio fisikoa antolatzea, ingurune eroso eta atsegina eskaintzeko.
- e) Familiei arreta eskaintzea eta seme-alaben hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa ematea.
- f) Hurrekoako koordinatzaile izendatu ditzakete, eta adierazitako funtzioak izan.